

A babua!

IRAULTZA inondik etortzez gero baratetik etorriko da. Historiak hala dio, eta historiak zer esanik ez. Kontzientzia eta jakiak behar ditu historiak, baita hitzak ere. Jatenik gabeko hitzik ez da. Loretik dator jatena, loreak emango duen fruituak daraman hazitik.

Eboluzioaren bidezidorretan landare gehienek haziaren ugaltza hautatu zuten. Ez denek. Garoek, adibidez, ez. Nork eza gutzen du garoaren lorea? Eta hazia? Garoek perretxikoen bide bera hartu zuten, esporak darabiltzate ugaltzeko. Loreetan eta fruituetan energiari alferrik galdu beharrik ez.

Askotu edo ugaritzeko fruituaren hautu zahar hari buelta eman dio batek baino gehiagok. Landareak, eboluzioaren zurrumbillean, zer berritan bilakatu saiatu eta saiatu ari dira. Begi-laburron muturraren aurrean, egunero milaka aldaketa gauzatzen ari dira landareak, etengabe.

Zurrumbilo horretan erotzen denik ere bada. Landareek ere badakite: txoroa baino hobe da eroa. Ero horietako batzuek urrats

harrigarria eman dute. Ugalketaren ikurra eta bitarteko nagusia den hazia abandonatu dute. Utzieste horren arrazoiak ez ditut aditzen. Ea nork dakien, eta ez dakienak trabes egin: bitako bat: bere bilakaeran, landareak, hazia ez bestelako ugaltze sistemaren bat hobetsi du edo jendeak etxekotu duen neurrian, bezatuta, gure espezieak behar duen neurrian ugaltu eta zainduko duela pentsatu eta hazia baztertzera ino otzandu da.

Bi adibide: banana (*Musa acuminata*, *Musa balbisiana* edo bien hibrido den *Musa × paradisiaca*) eta pikua (*Ficus carica*). Ugalketa sistema endekatuta sortzen dituzte "fruituak". Bananak ba al du hazirik? Eta pikua? Ez batek, eta ez besteak. Fruitu antzuak dira, eta "partenokarpikoak" deitzen zaie. Landare berriak sortzeko gaitasuna duten hazirik gabeak. "Alferrikakoak" diren fruituak. Bananon-



STEVE HOPSON-CC BY SA

Banana, hazirik gabeko fruitua.

doa ipurdiko altsumatik eta pikondo adarretik, erraz asko ugaltzen ditugu.

Fruituok jateko soilik balio dute. Gero eta horrelako igali gehiago ikusiko ditugu. Udarea, mahatsa, angurria... zerrenda hazten ari da. Hazia eragozpena da jateko orduan. Baina landareak bilakatzen ari dira eta alferrik ez dute energiari xahutuko: laster dira fruiturik ematen ez dutela. Gure muturraren aurrean. A babua! ■



Bat eta erdi

Frantziara begiratu. Frantziako basoari. Azken 60 urte hauetan, bi milioi hektarea baso landatu dira, koniferoak gehienak. Egun, 16,5 milioi hektarea baso dute. Hamabi milioi pribatuak dira. Numero izugarri horiek etorkizuneko ekonomiaren, ingurumenaren eta jendartearen aldeko dema adierazten dute. Areago, egungoa garatzeko bide ona. Basoaren eta zuraren inguruko ekonomiak enplegua ematen die, egun, 425.000 langileri. Automobilgintza zerutiar gurtuak 280.500 lagun besterik ez... Bat eta erdi aldiz gehiago basoak... ■



NOTNEB82-CC BY SA



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com